HIRUGARRENA: Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia argitaratzea eta hamabost egunez erakusketa publikoan jartzea, erreklamazioak edota alegazioak aurkeztu ahal izateko. Epe horretan erreklamaziorik ez balego, behin betikotzat onartua geratuko litzateke.

LAUGARRENA: Akordio honen berri interesatuei ematea.”

Honela izan da bozketa:

Aldeko botoak: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Jon Mikel Azpiazu Zubeldia, Ainhoa Arrozpide Landa, Xabat Beloki Segurola, Iratxe Begiristain Otegi, Xabier Aranburu Leiva, Jose Maria Lizaso Azconobieta, Oskar Santamaria Picabea, Maialen Iñarra Arregi, Xabier Otxoa Muñoz, Josune Urkola Larrarte, Ivan Iriondo Axpe eta Petra Romero Pozo.

Beraz, erabakia aho batez hartu da.

6.- 2024KO LANPOSTUEN ZERRENDAREN ALDAKETAREN ONESPENA (2023FAZE0001).

Batzarkideek Antolaketa batzorde informatzailearen irizpena aztertu dute dute eta honako erabakia hartu dute aho batez:

“2024ko Lanpostuen Zerrenda 2023ko abenduaren 20an egindako Udalbatzarrak onartu zuen.

Ondoren hainbat aldaketa egin dira.

Lanpostuen zerrenda apirilaren 18ko 781/1986 Errege Dekretu Legegileak 126. eta hurrengoetan eta abenduaren 1eko Euskal Enplegu Publikorako 11/2022 Legeak 45. artikuluan arautzen da. Dagokion iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da. Dena den, egintza administratiboa den heinean, argitaratzea informazioa emateko helburuarekin egiten da eta, hortaz, indarrean egongo da, Udalbatzaren erabakitik.



Usurbilgo Udala

2024/06/27

Pertsonal eta Antolakuntza teknikariak txostena osatu du.

2023ko abenduaren 20an 2024ko Lanpostuen Zerrenda onartu zen. Ondoren, hainbat aldaketa ere egin dira. Orain beste aldaketa proposatzen da. Diruzain izenarekin identifikatua dagoen lanpostua baliogabetzea eta Udal araudiaren arabera jatorrizko postuaren izena berreskuratzea.

Guzti hau ikusirik, Antolaketa Batzordeak, 2024ko ekainaren 19an egindako bilkuran, aho batez (aldeko botoak: Iratxe Begiristain, Agurtzane Solaberrieta, Joxe Mari Lizaso, Josune Urkola eta Petri Romero) onartutako irizpena kontuan hartuta, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

IRIZPENA

LEHENENGOA: Lanpostuen Zerrendan gaur egun Diruzain izenarekin identifikatua dagoen lanpostua baliogabetzea, txostenean aipaturiko arrazoiengatik.

BIGARRENA: Lanpostuen Zerrendan, atzera eginez, Udal araudiaren arabera jatorrizko postuaren izena berreskuratzea, Diruzaintzako administraria.

HIRUGARRENA: Lanpostuen zerrendaren iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

LAUGARRENA: Akordio honen berri interesatuei ematea.”

Honela izan da bozketa:

Aldeko botoak: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Jon Mikel Azpiazu Zubeldia, Ainhoa Arrozpide Landa, Xabat Beloki Segurola, Iratxe Begiristain Otegi, Xabier Aranburu Leiva, Jose Maria Lizaso Azconobieta, Oskar Santamaria Picabea, Maialen Iñarra Arregi, Xabier Otxoa Muñoz, Josune Urkola Larrarte, Ivan Iriondo Axpe eta Petra Romero Pozo.

Beraz, aho batez hartu da erabakia.

7.- HAUR ESKOLAKO ERABILTZAILEEI DAGOZKIEN ESKUBIDE ETA BETEBEHARREN ORDENANTZAREN HASIERAKO ONESPENARI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK ERANTZUN ETA ORDENANTZA BEHIN BETIKO ONARTZEA (2024ZZZZ0002).

Batzarkideek Herritarrak batzorde informatzailearen irizpena aztertu dute eta honako erabakia hartu dute:

“Usurbilgo Udalbatza Plenoak 2024ko apirilaren 11ko ezohiko bilkuran Haur eskolako erabiltzaileei dagozkien eskubide eta betebeharren ondenantza, hasieraz, gehiengoz onartu zen.



Usurbilgo Udala

2024/06/27

Erakusketa publikoko epean Udarregi Ikastolak (IFK: F20083465) Nerea Erauncetamurguil Manterola ordezkariaren bitartez erregistro elektronikoan sarrera aurkezu du (2024/S/2245). Bertan Haur Eskolako erabiltzaileei dagozkien eskubide eta betebeharren arautegiari alegazioa gauzatu du.

Arloko teknikaren txostena kontutan hartuta.

Herritarrak Batzorde informatzaileak, 2024ko ekainaren 19an egindako bilkuran, banan-banan bozkatu dira aurkeztu ziren alegazioak, eta bozketa guztietan emaitza hau atera da: aldeko lau bozkekin (Agurtzane Solaberrieta, Xabat Beloki, Jon Mikel Azpiazu eta Petra Romero) eta abstentzio batekin (Ivan Iriondo), onartutako irizpena kontuan hartuta Udalbatzarrak honako erabakia hartu du:

ERABAKIA

LEHENA.- Haur Eskolako erabiltzaileei dagozkien eskubide eta betebeharren arautegiari alegazioak modu honetan ebaztea:

1.- Goizeko irteera gehitzea. Arautegi berrian ez da goizeko irteera ordutegia eskaintzen baina orain arte haur eskolan aukera hau eskaini izan da. Goizeko irteera ordutegia gehitzea erabiltzaileei onura ekarriko dio ordutegi zabalagoa eskaintze delako. Proposatutako goizeko irteera ordutegia ondorengoa da:

IRTEERA GOIZEAN

0-1 urte 10:45-11:00

1-2 urte 10:45-11:00

2-3 urte 11:45-12:00

Alegazioa gehiengoz onartu da, honela izan da bozketa:

Alegazioa onartzearen alde: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Jon Mikel Azpiazu Zubeldia, Ainhoa Arrozpide Landa, Xabat Beloki Segurola, Iratxe Begiristain Otegi, Xabier Aranburu Leiva, Jose Maria Lizaso Azconobieta, Oskar Santamaria Picabea, Maialen Iñarra Arregi eta Petra Romero Pozo.

Abstentzioa: Xabier Otxoa Muñoz, Josune Urkola Larrarte eta Ivan Iriondo Axpe.

2.- Eguardiko sarrera ordutegia moldatzea. Eguardiko sarrera ordutegia zabalagoa eskaintzea proposatzen da haurren jasoketa mailakatua ahalbidetzeko.

SARRERA EGUARDIAN

0-1 urte 12:30

1-2 urte 12:30

2-3 urte 11:45-12:00

Alegazioa gehiengoz onartu da, honela izan da bozketa:



Usurbilgo Udala

2024/06/27

Alegazioa onartzearen alde: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Jon Mikel Azpiazu Zubeldia, Ainhoa Arrozpide Landa, Xabat Beloki Segurola, Iratxe Begiristain Otegi, Xabier Aranburu Leiva, Jose Maria Lizaso Azconobieta, Oskar Santamaria Picabea, Maialen Iñarra Arregi eta Petra Romero Pozo.

Abstentzioa: Xabier Otxoa Muñoz, Josune Urkola Larrarte eta Ivan Iriondo Axpe.

3.- Arratsaldeko irteera moldatzea. Matrikulazioan eskainitako ordutegi berriak une berdinean (sarrera-irteeretan) haur kopuru pilaketa egotea eragiten du hau dela eta ondorengo proposamena egiten da: **arratsaldeko irteera ordua zabaltzea eta haur eskolako hurrei askaria ez eskaintzea.**

IRTEERA ARRATSALDEAN

0-1 urte 15:30-16:00 (askari gabe)

1-2 urte 15:30-16:00 (askari gabe)

2-3 urte 15:30-16:00 (askari gabe)

Alegazioa ez da onartu gehiengoz (azalpena: askaria eskaini egin behar da), honela izan da bozketa:

Alegazioa ez onartzearen alde: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Jon Mikel Azpiazu Zubeldia, Ainhoa Arrozpide Landa, Xabat Beloki Segurola, Iratxe Begiristain Otegi, Xabier Aranburu Leiva, Jose Maria Lizaso Azconobieta, Oskar Santamaria Picabea, Maialen Iñarra Arregi eta Petra Romero Pozo.

Abstentzioa: Xabier Otxoa Muñoz, Josune Urkola Larrarte eta Ivan Iriondo Axpe.

4.- Sarrera irteera ordutegien taulari zehaztapena gehitzea proposatzen da, haur eskolako eguneroko jardueran haurren etxeratzeko uneak gelan eragin desegokirik izan ez dezan:

Haurren jasoketa ordutegi taulan zehaztutako ordutegi tartean egin behar da, haur eskolako eguneroko jardueran haurren etxeratzeko uneak gelan eragin desegokirik izan ez dezan. Hau da, Haur Eskola 8:00etan ireki eta 16:00etan itxi egingo da.

Alegazioa ez da onartu gehiengoz (azalpena: araudiko 2. puntuan azalduta dago ordutegia), honela izan da bozketa:

Alegazioa ez onartzearen alde: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Jon Mikel Azpiazu Zubeldia, Ainhoa Arrozpide Landa, Xabat Beloki Segurola, Iratxe Begiristain Otegi, Xabier Aranburu Leiva, Jose Maria Lizaso Azconobieta, Oskar Santamaria Picabea, Maialen Iñarra Arregi eta Petra Romero Pozo.

Abstentzioa: Xabier Otxoa Muñoz, Josune Urkola Larrarte eta Ivan Iriondo Axpe.



Usurbilgo Udala

2024/06/27

5.- Otorduen ordutegian zehaztutako oharrak ez du 2-3 urtekoei zehaztapenik egiten eta ondorioz ondorengo jartzea proposatzen da:

0-1 urte: 11:00 bazkaria (askaririk ez)

1-2 urte: 11:00 bazkaria (askaririk ez)

2-3 urte: 12:00 bazkaria (askaririk ez)

0-1 eta 1-2 haurrak medikutara joan behar baldin badu, 8:00-10:00 bitarteko ordutegian eramaten saiatu beharko da. Kontsulta ordua beranduago emanaz gero, haurra beranduago etorri daiteke, baina 11:00etatik aurrera etorri ezkeru, bazkalduta etorri beharko du.

2-3 haurrak medikutara joan behar baldin badu eta bazkaltzeko ordutegiarekin bat baldin badator haurrak bazkalduta etorri beharko du 12:00etatik aurrera.

Alegazioa ez da onartu gehiengoz (azalpena: askaria eskaini egin behar da), honela izan da bozketa:

Alegazioa ez onartzearen alde: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Jon Mikel Azpiazu Zubeldia, Ainhoa Arrozpide Landa, Xabat Beloki Segurola, Iratxe Begiristain Otegi, Xabier Aranburu Leiva, Jose Maria Lizaso Azconobieta, Oskar Santamaria Picabea, Maialen Iñarra Arregi eta Petra Romero Pozo.

Abstentzioa: Xabier Otxoa Muñoz, Josune Urkola Larrarte eta Ivan Iriondo Axpe.

6.- Haur kopuru eta ratioak.

Eskolan ez badago ratioa betetzeko haur nahikorik, adin ezberdineko haurrak gela berean multzokatzeko baimena lortu ahalko dela arautzen da eta haurren unitateak adin tarte ezberdinetan zein diren azaltzen da (0-1 urte eta 1-2 urte bitarte haurren unitateak: 1/8 eta 1-2 urte eta 2-3 urte bitarte haurren unitateak: 1/13) baina ez da azaltzen zein den hezitzaile ratioa unitate hauetarako, ondorioz, haurrak adin ezberdineko gela berean multzokatzeko hezitzaile ratioa multzokatzeko den adin txikinen hezitzaile ratioa aplikatuko dela zehaztea eskatzen da.

0-1 urte eta 1-2 urte bitarte haurren unitateak: 1/8. Hezitzaileak 1/5

1-2 urte eta 2-3 urte bitarte haurren unitateak: 1/13. Hezitzaileak 1/7

0-1 eta 2-3 urteetako haurrak ezingo dira nahastu.

Alegazioa gehiengoz onartu da, honela izan da bozketa:

Alegazioa onartzearen alde: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Jon Mikel Azpiazu Zubeldia, Ainhoa Arrozpide Landa, Xabat Beloki Segurola, Iratxe Begiristain Otegi, Xabier Aranburu Leiva, Jose Maria Lizaso Azconobieta, Oskar Santamaria Picabea, Maialen Iñarra Arregi eta Petra Romero Pozo.

Abstentzioa: Xabier Otxoa Muñoz, Josune Urkola Larrarte eta Ivan Iriondo Axpe.



Usurbilgo Udala

2024/06/27

7.- Matrikulazioa, itxaron zerrenda eta baja.

Erreserba 8 hilabetez gehienez gordetzea proposatzen da, itxaron zerrenda egongo balitz plaza bat ikasturte erdia baino gehiago erabili gabe egotea ekiditeko.

Alegazioa gehiengoz onartu da, honela izan da bozketa:

Alegazioa onartzearen alde: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Jon Mikel Azpiazu Zubeldia, Ainhoa Arrozpide Landa, Xabat Beloki Segurola, Iratxe Begiristain Otegi, Xabier Aranburu Leiva, Jose Maria Lizaso Azconobieta, Oskar Santamaria Picabea, Maialen Iñarra Arregi eta Petra Romero Pozo.

Abstentzioa: Xabier Otxoa Muñoz, Josune Urkola Larrarte eta Ivan Iriondo Axpe.

BIGARRENA.- Haur eskolako erabiltzaileei dagozkien eskubide eta betebeharren arautegia behin betiko onartzea.

“1.Eguneroko harremanak hezitzailearekin.

Gurasoek, haurra ekarri edo jasotzean, hezitzailearekin eguneroko gorabeherei buruz hitz egin beharko dute.

Hezitzaileek, egunean zehar emandako gertaera garrantzitsuenak adierazi beharko dituzte ere.

Honez gain, hiruhilabetero pedagogi gaiak jorratzeko gela bilera bat egingo da. Dena den, hezitzailearekin kontsultatu ahal izango da haurraren inguruan izan daitezkeen edozein zalantza.

Gurasoek ezin badute haurra jasotzera joan, alde zurretik abisatuko dute nor joango den hura jasotzera eta honek sinatutako baimena aurkeztuko du.

Haur Eskolako izaera laikoa eta pluralista mantentzeko, guraso eta hezitzaileen iritzi filosofikoa, politikoa edo erlijiosoa errespetatzeko ezin izango da eskolatzeko-jokaerarik egin.

2.Haur eskolako ordutegi egutegia.

Haur eskola egutegia irailetik uztaileira izango da, astelehenetik ostiraletara irekia egonez, jai egunak izan ezik, gurasoek kurtso hasieran jasoko dutelarik bete beharreko egutegi zehaztua.

Ordutegia 8:00-16:00ak bitartekoa izango da.

Haurrak gehienez 8 ordu emango du Haur Eskolan.

Aukerako bi ordutegi eskeintzen dira: egonaldi erdia (4 ordu) eta osoa (8 ordu).

Matrikula garaian aukeratutako ordutegia ondorengo salbuespen kasuetan soilik aldatzeko aukera izango da: gurasoren batek lana galtzean edo familiaren egoera larriki zailtzen den egoeratan. Gainera, aldaketa 15 egun lehenago eskatu beharko da.



Usurbilgo Udala

2024/06/27

Sarrera-irteeren ordutegia ondorengo da:

	Sarrera goizean	Irteera goizean	Sarrera eguerdian	Irteera eguerdian	Irteera arratsaldean
0-1 urte	08:00-10:00	10:45-11:00	12:30	13:00-13:30	14:45-15:00 askaria gabe 15:45-16:00 askariarekin
1-2 urte	08:00-10:00	10:45-11:00	12:30	13:00-13:30	14:45-15:00 askaria gabe 15:45-16:00 askariarekin
2-3 urte	08:00-09:30	11:45-12:00	11:45-12:00	13:00-13:30	15:45-16:00 askaria gabe

Otorduen ordutegia ondorengo da:

0-1 urte: 11:00 bazkaria eta 15:10 askaria.

1-2 urte: 11:00 bazkaria eta 15:10 askaria.

2-3 urte: 12:00 bazkaria (askaririk ez).

Haurrak medikutara joan behar baldin badu, 8:00-10.00 bitarteko ordutegian eramaten saiatu beharko da. Kontsulta ordua beranduago emanez gero, haurra beranduago etorri daiteke, baina 11.00etatik aurrera etorri ezker, bazkalduta etorri beharko du. 15.00 etatik aurrera etorri gero meriendatuta etorri beharko du ere.

3. Egokitzapen prozesua.

Egokitzapen prozesua 2-3 astetan zehar burutuko da gutxi gora-behera.

Lehenengo astean, haurra Haur Eskolan 2 ordu inguru egongo da aita, ama edota gertuko pertsona batekin. Denbora hori oso garrantzitsua izango da Eskolako funtzionamenduari buruz (gurasoei hezitzaileak ematen dien informazioa) eta haurraren izaerari buruz: ohiturak, loa, jana, (gurasoek hezitzaileari ematen dioten informazioa) hitz egiteko, eta baita guraso-hezitzailearen arteko harreman hastapenak sustatzeko.

Haur bakoitzak bere eguneroko ordutegia egiten hasi aurretik, bigarren astean, haurrak Haur Eskolan egingo dituen orduak luzatu egingo dira, gurasoengandiko banatze prozesua ahalik eta errazen izan dadin. Aste honetan haurrak gehienez 3 edo 4 ordu igaroko ditu bertan.

Bigarren urrats hau eman ondoren, gurasoak edo gertuko pertsonak dagoeneko haurra Haur eskolan utziko du egunero bertan egongo den ordu kopurua beteaz.

Prozesu guzti hau zertxobait alda daiteke haurraren ezaugarri pertsonalak eta adina kontuan izanik, hau da, garapenaren arabera ezberdina izango da.

4. Gurasoek etxetik ekarri behar dituzten gauzak.

Haurraren beharrak era egokian asetzeko beharrezkoak diren zenbait gauza nahiko pertsonalak direnez, haur bakoitzak etxetik ekarri beharko ditu.

Honela, gauza batzuk Haur Eskolan utzi beharko dira kurtsoan zehar eta beste batzuk haurraren poltsan ekarri beharko dira egunero.



Usurbilgo Udala

2024/06/27

Haur Eskolan utzi behar direnak:

- Biberoia.
- Esnea, papilla.
- Pardelak, «Toailatxo bustiak», haurraren garbitasunerako.
- Txupetea (Haur Eskolan etxekoa erabili arren, komeni da badaezpada gelan beste bat edukitzea).

Egunero poltsan ekarri behar direnak:

- Aldagaiak: Kamiseta, bodia, kuleroak, ...
- Aldatzeko arropa: Pijama, galtzak, nikia ..., Arropa adina eta urte sasoiaren arabera doa.
- Toaila txiki bat.
- Baberoak.
- Arropa zikina sartzeko plastikozko poltsa.
- Jarabea, krema ..., haurrak behar izango balitu.

Dena den, egunero gurasoek hezitzailearekin duten harremanean gauza horiek zehazten joango dira.

Janariari dagokionez, ezingo da kanpotik ekarri.

5. Osasunari buruzko araudia.

Haurra gaixo dagoenean ezingo da Haur Eskolara eraman. Xehetasunak informazio txostenean emango dira ikasturtero.

6. Ixiltasuna.

12.30etatik aurrera tinbrea ahalik eta motzena jo eta pasiloetan baju hitz egin behar da, siesta garaia baita.

7. Haur kopuru eta ratioak.

Usurbilgo haur eskolak gehienez 92 haur jasoko ditu:

- 0-1 urte: 12 haur.
- 1-2 urte: 26 haur.
- 2-3 urte: 54 haur.

Gela bat irekitzeko gutxieneko haur kopurua ondorengoak izango da.

- 0-1 urte: 3 haur.
- 1-2 urte: 5 haur.
- 2-3 urte: 5 haur.

Haur Eskolako guztizko plaza kopurua hala ere, uneko jaiotze tasa kontuan harturik, beharraren arabera aldatu daiteke espazioak horretarako aukera ematen badu.

Ratioei dagokienez, ondorengoak izango dira:

- 0-1 urte: 8 haur gelako. Hezitzaileak 1/5.
- 1-2 urte: 13 haur gelako. Hezitzaileak 1/7.
- 2-3 urte: 18 haur gelako. Hezitzaileak 1/10.



Usurbilgo Udala

2024/06/27

Eskolan ez badago ratioa betetzeko adina haurrik, adin ezberdineko haurrak gela berean multzokatzeko baimena lortu ahal izango da, jarraian zehazten diren ratioen arabera:

0-1 urte eta 1-2 urte bitarteko haurren unitateak: 1/8. Hezitzaileak 1/5.

1-2 urte eta 2-3 urte bitarteko haurren unitateak: 1/13. Hezitzaileak 1/7.

0-1 eta 2-3 urteetako haurrak ezingo dira nahastu.

Haurrak adin ezberdineko gela berean multzokatzeko aukera izanez gero, lehentasuna edukiko du multzokatzeko honek gela berriaren sormenaren gain, betiere adin horretako gela osoa sortzeko aukeraz ez balego. Beraz, gela osoa sortzeko aukera egonez gero gela horrek lehentasuna edukiko du. Aldiz, adin bereko gela bat betetzeko haur kopurua ez balego, adin ezberdineko haurrak nahastutako gela sortu beharko litzateke.

8. Matrikulazioa, itxaron zerrenda eta baja.

Matrikulazioa

-Apirilean egingo da. Epetik kanpo matrikulatzeko aukera emango da ere betiere plazak izanez gero. Matrikulazio epean izena eman duten haurren kopurua eskeinitako plazak baino handiagoa denean, jarraian adierazten den lehentasun-hurrenkerareka jarraituko da:

- 1) Usurbilen erroldatuta dauden haurrak.
- 2) Kasu berezi edo premiazkoak, halakotzat ulertuz:
 - a) Haur berezia: duen egoera fisikoaren edo psikikoaren eraginez mota honetako dinamikan txertatzea gomendatzen denean.
 - b) Egoera familiarra: egoera hori sozioekonomikoa izan edo familiarra izan, tratamendu berezi bat eskatzen duenean.
- 3) Haurraren anai-arrebaren bat Haur Eskolan lehendik izena emanda dagoenean.
- 4) Haurraren gurasoak lan aktiboan daudenean, edo guraso bakarreko familiak baldin badira (alarguna, banandua, dibortziatua, guraso bakarrekoa, eta abar), guraso hori lan aktiboan dagoenean.
- 5) Haurraren gurasoetako bat lanean eta bestea langabezia-egoeran baina lan bila dagoenean.
- 6) Haurraren gurasoetako bat lan-egoera aktiboan eta bestea ikasketa ofizialak egiten ari denean.
- 7) Haurraren aita eta ama lanean ez daudenean, baina horietako bat langabezia-egoeran lan bila ari denean.
- 8) Haurraren aita edo ama lan-egoeran dagoenean, eta bestea lan bila ari ez denean.
- 9) Haurra Usurbilen erroldatuta ez badago ere, gurasoetako baten lantokia Usurbilen dagoenean.

Baldintza horiek egiaztatu egin beharko dira, kasuan kasu, eskudunak diren erakunde publikoek edo langile teknikoek igorritako agirien edo txosten teknikoen bidez. Aurreko irizpide horiei dagokienez, egoera berdinean dauden eskatzaileen artean, diru-sarrera txikiak dituztenei emango zaie lehentasuna. Haurren bat arestian aurreikusitako kasuetan sartzen ez bada ere Udalak arreta berezikotzat har ditzakeen arazoak dituela ulertzen badu, Udalak lehen aipatu beste irizpide edo balizkoen gainean lehentasuna eman ahal izango dio kasu horri.

-Haurra ez da onartua izango baldin eta gurasoak jaiotza baimenaz gozatzen ari badira edota haurra zaintzeagatiko eszedentzia egoeran egon eta arrazoi horrengatik laguntza ekonomikoa jasotzen badute. Hala ere, matrikula egin ahal izango dute lanpostura itzultzeko data baino lehenago, dagokion enpresa ziurtagiriarekin egiaztatuta.



Usurbilgo Udala

2024/06/27

-Oraindik jaio ez diren haurrak inskibratzeko aukera egongo da.

-Haur Eskolan hasterakoan, haurrek 16 aste beteta izan beharko dituzte.

Itxaron zerrenda

Haur eskolan onartu ez diren haurrekin aurrez aipatutako onarpen-irizpideen arabera zerrenda bat egongo da, hurrenkera hori aplikatuz ikasturtean zehar plaza libreren bat gertatzen denean.

Plazaren bat libre geratuz gero zerrendako lehenarekin jarriko da harremanetan Haur Eskola eta aste bat emango zaio familiari erantzuteko. Lokalizatu ezin bada edota plazari espresuki uko egiten badio, itxaron-zerrendatik kanpo geratuko da eta plaza zerrendan hurrengoari eskeinitako zaio.

Bajarik gertatuko ez balitz, haur horiek berriro eman beharko lukete izena, beste ikasturterako izena emateko epe berria zabaldukoan, eta galdu egongo dituzte aurrez hartutako eskubideak.

Erreserba kuota bat egongo da ere, kuotaren zenbateko erdiaren zenbatekoarekin eta irailetik aurrera haurra hasten den hilabetea hasi arte ordainduko dena. Aldiz, jangela kuota haurra Haur Eskolan hasten den hilabetetik aurrera ordainduko da.

Erreserba 8 hilabetez gehienez gordeko da, itxaron zerrenda egongo balitz plaza bat ikasturte erdia baino gehiago erabili gabe egotea ekiditeko.

Baja

Baja eskaera idatziz aurkeztu beharko da hilabete berria hasi baino 10 egun lehenago, bestela hilabete horretako kuota mantendu egongo da.

Justifikatu gabeko hutsa 20 egun edo gehiagokoa izanez gero edo 2 hilabetetako kuota ez ordaintzeak, plaza horren galera suposatuko du automatikoki, plaza hori itxarote zerrendan lehenengo postuan dagoen haurrari esleituz.

Baja ekainean izanez gero, ekaina eta uztaila ordaindu beharko da.

9. Prezioa.

Ordenantza Fiskaletan zehaztutakoa.

-Hobariei eta anai-arreben prezio eta baldintzei dagokienez, Udalean indarrean dauden Ordenantzek arautuko dituzte.

10. Gobernantza.

Udaleko hiru ordezkari, lizitatuzailearen hiru ordezkari (ZTko bi kide bat eta Haur Eskolako langile bat) eta Haur Eskolako guraso ordezkariak osatuko du.

Bileren maiztasuna 3-4 hilabetekoa izango da: ikasturtea hasi baina lehen, ikasturtean zehar eta ikasturtea amaitu baina lehen..”



Usurbilgo Udala

2024/06/27

HIRUGARRENA.- Ordenantza Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udaletxeko Iragarki Taulan publikatzea.”

Jasotako alegazioak erantzun ondoren, Ordenantzari behin betiko onarpena eman zaio gehiengoz, honela izan da bozketa:

Alde: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Jon Mikel Azpiazu Zubeldia, Ainhoa Arrozpide Landa, Xabat Beloki Segurola, Iratxe Begiristain Otegi, Xabier Aranburu Leiva, Jose Maria Lizaso Azconobieta, Oskar Santamaria Picabea, Maialen Iñarra Arregi eta Petra Romero Pozo.

Abstentzioa: Xabier Otxoa Muñoz, Josune Urkola Larrarte eta Ivan Iriondo Axpe.

Beraz, erabakia gehiengoz hartu da.

8.- USURBILGO UDAL HAUR ESKOLA ZERBITZUAREN ESLEIPENA (2024LIRZ0001).

Batzarkideek Herritarrak batzorde informatzailearen irizpena aztertu dute eta gehiengoz onartu dute, honela dio:

“IKUSIRIK

2024ko apirilaren 11ko Udalbatzarrak Usurbilgo Haur Eskola zerbitzua kontratatzeke espedienteari onespina eman zion, prozedura ireki arruntaren bidez, udal Kontratazio Plataforman argitaratuz.

Eskaintzak aurkezteko epea 2024ko maiatzaren 23an amaitu zen eta lizitatzailerik bakarra aurkeztu da: Udarregi Ikastola Irakaskuntza Koop. Elkarteak.

2024ko ekainaren 10eko 2024/686 dekretuz, eskaintza ekonomiko onena eta bakarra egin duena Udarregi Ikastola Irakaskuntza Koop. Elkarteak dela zehaztu zen eta errekerimendua egin zitzaion oinarri administratiboetan zehazten diren agiriak eta behin betiko bermea aurkeztu zitzaion. Emandako epe barruan enpresak eskaturiko agiriak aurkeztu ditu eta zuzenak dira.

Udarregi Ikastola Irakaskuntza Koop. Elkarteak aurkeztutako 68.472,00 eurotako behin betiko bermea kontabilizatu da (IE 29-2024).

Guzti hau ikusita, Herritarrak Batzordeak, 2024ko ekainaren 19an egindako bilkuran, aho batez (aldeko botoak: Agurtzane Solaberrieta, Jon Mikel Azpiazu, Xabat Beloki, Ivan Iriondo eta Petra Romero), egindako irizpena kontuan hartuta, Udalbatzarrak honako erabakia hartu gehiengoz:

ERABAKIA



Usurbilgo Udala

2024/06/27

LEHENA: Udarregi Ikastola Irakaskuntza Koop. Elkarteari esleitzea Usurbilgo Haur Eskola zerbitzuaren kontratua, hezitzaileen gehieneko orduko prezioa 32,00 euro/orduko, BEZ salbuetsita.

BIGARRENA: 2024ko aurrekontuan 180.943,33 euroko gastua xedatzea kontratu hau burutzeko (A 489-2024).

HIRUGARRENA: Kontratuaren aurka **kontratazio-arloko helegite berezia** jar daitekeenez, kontratua ezin izango da formalizatu harik eta hamabost egun baliadun igaro arte, lizitatuak eta hautagaiei esleipenaren jakinarazpena bidaltzen zaienetik, SPKLren 153.3, 44. artikuluan eta hurrengoetan aurreikusitakoaren arabera. Epe horretan helegiterik jarri ez bada, adjudikaziodunari eskatuko zaio kontratua formaliza dezala gehieneko bost eguneko epean, horretarako errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik aurrera.

LAUGARRENA: Erabaki hau Kontratatzaile Profilean argitaratzea.

BOSGARRENA: Erabaki hau interesdunari jakinaraztea.

SEIGARRENA: Erabaki hau hezkuntza sailari komunikatzea.”

Honela izan da bozketa:

Alde: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Jon Mikel Azpiazu Zubeldia, Ainhoa Arrozpide Landa, Xabat Beloki Segurola, Iratxe Begiristain Otegi, Xabier Aranburu Leiva, Jose Maria Lizaso Azconobieta, Oskar Santamaria Picabea, Maialen Iñarra Arregi eta Petra Romero Pozo.

Abstentzioa: Xabier Otxoa Muñoz, Josune Urkola Larrarte eta Ivan Iriondo Axpe.

Beraz, erabakia gehiengoz hartu da.

Alkateak hurrengo hiru puntuen ordena aldatu du, Palestinarekiko Erantzukizun Elkarteko kide bat bertaratu baita pleno aretora.

9.- MOZIOA: PALESTINAKO EGOERARI BURUZ PALESTINAREKIKO ERANTZUKIZUN PLATAFORMAK AURKEZTUTAKO MOZIOA (2024IMOZ0003).

Batzarkideek Antolaketa batzordeak diktaminatuta datorren adierazpena gehiengoz onartu dute, honela dio:

“ZIOEN AZALPENEA

Israel nahita ari da bonbardatzen Gazako zerrendan eta Zisjordanian bizitegi- auzoak, eskolak, errefuxiatu-esparruak, ospitaleak eta anbulantziak. **Nazioarteko Zigor Gorteko** fiskalak ikerketak hasi ditu gerrako krimenengatik, eta giza eskubideen aldeko erakundeek eta **Nazio Batuen** agentziek premiazkoa dute nazioarteko komunitateak premiazko neurriak



Usurbilgo Udala

2024/06/27

har ditzan sarraski hori geldiarazteko. 2023ko urriaren 7tik 2024ko urtarrilaren 4ra bitartean 29.438 pertsona baino gehiago hil dituzte Gazan, horien artean 9.739 haur gutxienez. **Save the Childrenek** salatu du Gazako Zerrendan haurren heriotza gehiago izan direla azken hilabeteotan 2019tik munduko gatazka guztietan baino. Erakunde horren arabera, ume bat 10 minuturo hiltzen da Gazan.

Nazio Batuetako adituek ohartarazi dute Palestina osoan gertatzen ari dena genozidioa dela, eta gobernuei eskatu diete ekintzara pasatzeko, esanez "Israelen aliatuek ere erantzukizuna dutela eta orain jardun behar dutela, genozida izaerako ekintza bide zorigaitzokoa eragozteko. Alde guztiek beren betebeharrak bete behar dituzte, nazioarteko zuzenbide humanitarioaren eta giza eskubideen arabera."

Genozidio Delitua Prebenitzeko eta Zigortzeko Konbentzioaren I. artikulua, Espainiako Estatu sinatzaile duenak, estatuak behartzen ditu gizateriaren aurkako mota horretako krimenak prebenitzeko eta zigortzeko neurriak hartzera. Gogora dezagun, gainera, genozidio hori herri palestinar baten aurka egiten dela, **Amnesty Internationalek** eta **Human Rights Watchek** salatzen duten bezala hamarkadak daramatzen herri palestinar baten aurka.

Armak enbargatzea ezinbesteko urratsa da norabide horretan, eta betebeharrak ez ezik, legezkoa ere bada, Espainiako esparru juridikoan jasotzen den bezala; izan ere, debekatu egiten da armak saltzea gatazkan dauden herrialdeei edo giza eskubideen urraketa handiak dituzten herrialdeei. Hauek dira arauak:

1. 532007 Legea, abenduaren 28koa, defentsarako eta erabilera bikoitzeko materialaren kanpomerkataritzaren kontrolari buruzkoa.
2. Armen merkataritzari buruzko tratatua. Espainiak 2014ko martxoaren 17an berretsia.
3. 2008ko Jarrera Bateratua 944 ASPE, 2008ko abenduaren 8koa, teknologia eta ekipo militarren esportazioak kontrolatzeko arau komunak zehazten dituena.

Aurretik ere antzeko erabakiak hartu izan ditu Espainiako Gobernuak, hala nola, Libian 2011n armen salmenta etetea, PSOE agintean zela; edo istiluen aurkako materialaren salmenta Venezuelan. 2014ko abuztuan Israeli armak saltzeko aldi baterako etenaldiaren aurrekaria ere badugu. Data horretan, Mariano Rajoy presidente zela, Israelek 2.205 pertsona palestinar erahil zituen Gazan, horietatik 538 haurrak. Garai hartan arma-enbargoa justifikatuta bazegoen, gaur egun ezinbestekoa da.

Garrantzitsua da arma-enbargoa bi norabidetan ulertzea, hau da, Israeli armamentua eta segurtasun teknologia saltzea eta erostea debekatu behar zaio. Espainiak saltzen dituenak baino askoz arma gehiago erosten dizkio Israeli.

Israelek Palestina erabiltzen du, batez ere Gazako Zerrenda, esperimentazio- eremu gisa arma berriak eta errepresio metodoak probatzeko, eta gero esportatu egiten ditu, munduko biztanleria zibilaren aurka erabiltzeko. Produktu horiek "borrokan frogatutako" gisa iragartzen dira, eta hori balio erantsi bat bihurtu da segurtasunaren eta nazioarteko defentsaren



Usurbilgo Udala

2024/06/27

merkatuan. Israelek sustatzen duen marka "borrokan probatua" da, eta Palestinako populazio zibilari buruz probatu diren produktuei egiten die erreferentzia. Genozidio batek kontuak eman beharko lituzke eta ez etekin ekonomikoak.

Espainiako Estatuko gobernuek ez ezik, Eusko Jaurlaritzak, Nafarroako Gobernuak eta tokiko administrazioek ere mundu osoan bakea mantentzen eta giza eskubideak errespetatzen laguntzeko erantzukizuna eta betebeharra dute, eta, horretarako, Israelek Palestinako herriaren aurka egiten dituen krimen sistematikoen aurrean duen zigorgabetasuna amaitu behar da.

Giza eskubideak betetzen direla ziurtatzea Administrazioaren maila guztietara hedatzen den betebeharra da, hala nola Israelgo enpresa konplizeetan inbertsio publikoa kontrolatzea. Egia da estatuetako eta lurraldeetako gobernuek zeregin garrantzitsua dutela giza eskubideen sustapenean eta babesean, baina tokiko gobernuek abangoardian egon behar dute eta pertsona guztientzako giza eskubideen errespetua bermatu behar dute.

Horregatik guztiagatik, Usurbilgo Udalak

ERABAKI DU:

- Palestinan berehalako su-etena eskatzea, eta Gobernuari eskatzea Gazako Zerrendan laguntza humanitarioa sartu eta emango dela ziurtatzea, betiere langile humanitarioen babesa bermatuz.
- Biztanleria zibilaren aurkako eraso guztiak salatzea eta Nazioarteko Eskubide Humanitarioekiko eta Giza Eskubideen Nazioarteko Zuzenbidearekiko errespetua eskatzea, NBEk gerra-krimenak eta gizateriaren aurkako krimenak (genozidioa eta apartheid-a barne) amaitzeko eta zigortzeko behar dituen mekanismoak aktibatuz.
- Onartzea okupazio koloniala eta apartheid-a direla gatazkaren egiturazko arrazoiak, eta nazioarteko komunitateak Nazio Batuen ebazpenak eta giza eskubideen nazioarteko zuzenbidea bete behar dituela, bake justu eta iraunkorra eraikitzeko berme gisa.
- Israelgo gobernuarekin harreman instituzional guztiak etetea behin betiko su- etena izan arte, Palestinako herriaren giza eskubideak bermatu arte eta Israelek Nazioarteko Zuzenbidea eta Nazio Batuen ebazpenak bete arte.
- Eusko Jaurlaritzari eskatzea, Udal honetatik egiten dugun bezala, Espainiako Gobernuari exiji diezaiotela Estatuko esparru juridikoan ezarritako betebeharrak bete ditzala eta Israeli norabide biko bahitura militarra ezardiezaiola, bai eta Israelekin lankidetzatza militarreko eta segurtasuneko programaguztiak bertan behera utz ditzala ere, Palestinako herriaren eskubideak errespetatu arte.
- Eusko Jaurlaritzari, eta Espainiako Gobernuari Gazako Zerrendaren aurkako bonbardaketak eta setioa gelditzeko behar diren neurri diplomatiko guztiak har ditzatela eskatzea, Israelgo gobernuaren eta haren arduradunen aurkako zigor- programa barne, eta Israelgo Estatuarekin harreman diplomatikoak etetea Nazioarteko Zuzenbidea eta Nazio Batuen ebazpenak bete arte.

Aurreko erabakiak jakinaraztea:



Usurbilgo Udala

2024/06/27

- Imanol Pradales jauna, Eusko Jaurlaritzako lehendakaria.
- Bingen Zupiria Eusko Jaurlaritzako Segurtasun sailburua.
- Eider Mendoza Larrañaga
- Pedro Sánchez Pérez-Castejón jauna, Espainiako Gobernuako presidentea.
- José Manuel Albares Bueno jauna, Kanpo Arazoetako, Europar Batasuneko eta Espainiako Lankidetzako ministroa.
- And. Margarita Robles Carrillo, Defentsako ministroa.
- Josep Borrell i Fontelles jauna, Europar Batasunaren atzerri- eta segurtasun- politika erkideko goiordezkaria.
- Antonio Guterres jauna, Nazio Batuetako idazkari nagusia.”

Honela izan da bozketa:

Alde: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Jon Mikel Azpiazu Zubeldia, Ainhoa Arrozpide Landa, Xabat Beloki Segurola, Iratxe Begiristain Otegi, Xabier Aranburu Leiva, Jose Maria Lizaso Azconobieta, Oskar Santamaria Picabea eta Maialen Iñarra Arregi.

Kontra: Xabier Otxoa Muñoz, Josune Urkola Larrarte, Ivan Iriondo Axpe eta Petra Romero Pozo.

Beraz, mozioa gehiengoz onartu da.

10.- MOZIOA: EKIALDE HURBILEKO MUTURREKO INDARKERIA EGOERARI BURUZ PSE ETA EAJ UDAL TALDEEK AURKEZTUTAKO MOZIOA (2024IMOZ0005).

Mozio hau aurretik batzorde batek diktaminatu gabe datorrenez, batzarkideek aho batez berretsi dute gai-ordenean txertatzea.

Batzarkideek gehiengoz onartu dute mozioa:

“Palestinarrak beren lurraldetik kanporatu eta Israel legez kanpo okupatzen hasi zenetik 75 urte pasa direnean, azken 4 hilabeteotan euren armadak Gazako zatirik handiena suntsitu du eta 31.000 pertsona inguru hil ditu, horietatik gutxienez 17.000 haur, UNICEFen kalkuluen arabera, eta 70.000 zauritu utzi ditu. Gainera, beste 7.000 pertsona daude obra-hondakinen azpian. Etxebizitza-eraikinen erdia baino gehiago suntsitu dira, ospitale, eskola eta azpiegitura gehienez gain. Israelek ezarritako misilek eta setioak herritarrak ur, elektrizitate eta elikagai zerbitzurik gabe mantentzen dituzte ordutik, eta UNRWAK salatu duenez, 2,3 milioi biztanleen artean 2 milioi pertsona beren hirietatik bota dituzte, eta bien bitartean bonbardaketak eta lurreko inbasio militarra jasaten jarraitzen dute. Israelgo estatua palestinar biztanleria zibilaren aurka egiten ari den eraso indiskriminatua onartezina eta gaitzesgarria da. Biztanleria zibila, inoiz helburu militarra izan ezin duena, blokeatuta dago munduko aire zabaleko kartzela handiena deitzen duten horretan. Aldi berean, asko kezkatzen gaitu Zisjordanian Israelgo armadak eta kolono juduek eragindako indarkeriak,



Usurbilgo Udala

2024/06/27

bereizi gabe tiro eginez eta palestinarren jabetzak suntsituz; azken hori 2024/02/01ean ere aitortu zuen Biden administrazioak.

NBEko agentziek hondamendi humanitariotzat jo duten egoera horren aurrean, Usurbilgo Udaleko osoko bilkurak:

1. Uste du Israelgo Estatu biztanleria zibilaren aurka egiten ari den eraso bereizi gabeak eta kolektiboak ez dituela inongo gertakarik justifikatzen, ezta Hamasek iragan urriaren 7an Palestinako biztanleria zibilaren aurka egindako eraso terrorista gordinak, onartezinak eta gaitzesgarriak direnak. Israelen erasoek milaka hildako, Gazako lurraldearen erabateko suntsipena eta biztanleria osoaren nahitaezko desplazamendua eragiten ari dira.
2. Su-eten osoa eta mugagabea, Gazako erremuan oinarrizko horniduren blokeoa etetea, herritarrak euren lurraldera itzultzea eta Zisjordaniako palestinarren aurkako erasoak amaitzea eskatu du, urriaren 7tik gogortu egin baitira.
3. Israelgo Estatuari exijitzen dio atxiloketa administratiboaren babespean modu arbitrarioan atxilotutako presoak berehala aska ditzala (kargurik eta epaiketarik gabeko atxiloketa, mugarik gabe berriro daitekeena). 6.000 palestinar inguru atxilotu dituzte prozedura honen bidez, eta horien artean ehunka adingabe daude. Amnistia Internazionalak salatu du hori.
4. 2023ko urriaren 7tik bere esku dituen bahitu guztiak berehala askatzeko eskatzen dio Hamasi.
5. Nazioarteko legedia betetzea eta Israelgo Estatuak sistematikoki mespretxatu dituen NBEren ebazpenak betetzea eskatzen du.
6. Laguntza humanitaria etengabe eta murrizketarik gabe sartzeko eskatzen du, herritarrei ura, elektrizitatea, erregaia, elikagaiak, sendagaiak eta bizitzarako funtsezkoa den guztia eskuratzea berrezarritik. Era berean, Usurbilgo Udala prest agertu da Palestinatik datozen errefuxiatuak hartzeko, eta NBEk Palestinako errefuxiatuak artatzeko duen erakundeari babesa adierazi dio UNRWAr, bai eta Palestinaren alde lan egiten duten erakundeei dirua bideratzeko konpromisoa ere.
7. Gazako egoera jasanezina dela eta hondamendi humanitario are handiagoa gertatzeko arriskua dagoela ikusita, EB/Israel Elkartzeko Akordioaren premiazko ebaluazioa egin dezala eskatzen diogu EBri, giza eskubideen eta printzipio demokratikoen arloko harremanaren funtsezko puntuak betetzen ari diren iker dezan eta, bete ezean, neurri egokiak har ditzan.
8. Europar Batasunaren (EB) Israeldar eta Palestinar arteko Bake Integralerako Plana babesten dugu, eskualdean bake iraunkorra ezartzeko eta egungo indarkeria-egoerari aurre egiteko, bai eta erradikalizazio handiagoa eta gatazka berriak ere. Plan Integralak, besteak beste, aurreikusten du EBren, Egiptoren, Jordaniaren, Saudi Arabiaren eta Estatu Arabiarren Ligaren arteko Prestatzeko Bake Konferentzia antolatzea, Gazako gerrari, baina batez ere



Usurbilgo Udala

2024/06/27

Palestinaren eta Israelen arteko gatazkari, ekiteko. Horretarako, Bake Plan bat egingo da, Israelentzat eta etorkizuneko Palestinako Estatu independentearentzat segurtasuna bermatu behar duena, eta bakea lortzen denean zer mekanismo politiko eta segurtasun-mekanismo eta beste akordio eta proiektu jarriko diren abian ezarriko da.

9. Palestinarren eta israeldarren bidezko asmoei erantzun bakarra emateko, bakean eta lankidetzan, bideragarriak diren bi estaturen konponbidearen ikuspegia eta beharra babesten ditu, baita bakerako eta segurtasunerako funtsezko elementu gisa ere. Ildo horretan, Usurbilgo Udalak dei egiten die estatuei eta nazioarteko erakundeei Palestinako estatuaren aitortza ofiziala egin dezaten.

10. Ildo horretan, oso positibotzat jotzen du Espainiako, Irlandako eta Norvegiako estatuak gauzatutako Palestinako Estatuaren onarpena, eta espero du neurri hori beste estatu batzuek jarraitzea, Israeli presioa egiteko modu bat izan dadin, erasoak berehala eten ditzan eta ezinbesteko bake-prozesua berriro bultzatzen irmo lagun dezan.

11. Dei egiten dio Israelgo Estatuari Nazioarteko Justizia Auzitegiaren ebazpenak bete ditzan, bereziki Hagako epaimahaiaren ebazpena, Hegoafrikak Gortean aurkeztutako salaketaren aurrean, non genozidio kasu bat den ikertzeko "ebidentzia juridiko nahikoak" daudela nabarmentzen duen. Era berean, genozidioa eragozteko neurriak hartzeko eskatzen dio Israelgo Estatuari, eta, aldi berean, Gazara laguntza humanitarioa iristen uzteko eskatzen dio.

12. EBri eta nazioarteko erakundeei dei egiten die atsedenik gabe jardun dezaten eskualdean bake egonkorra eta iraunkorra lortzeko, Palestinako Herriaren biziraupena baldintza duin eta bideragarrietan eta Israelgo Estatuaren segurtasuna bermatzeko."

Honela izan da bozketa:

Alde: Xabier Otxoa Muñoz, Josune Urkola Larrarte, Ivan Iriondo Axpe eta Petra Romero Pozo.

Abstentzioa: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Jon Mikel Azpiazu Zubeldia, Ainhoa Arrozpide Landa, Xabat Beloki Segurola, Iratxe Begiristain Otegi, Xabier Aranburu Leiva, Jose Maria Lizaso Azconobieta, Oskar Santamaria Picabea eta Maialen Iñarra Arregi.

Beraz, mozioa gehiengoz onartu da.

11.- LGTBIQ+ HARROTASUNAREN EGUNA 2024KO EKAINAK 28KO ADIERAZPENA (2024IMOZ0004).

Batzarkideek Herritarrak batzordeak diktaminatuta datorren adierazpena aho batez onartu dute, honela dio:



Usurbilgo Udala

2024/06/27

“LGTBIQ+
Harrotasunaren Eguna
2024ko ekainak 28

Ekainaren 28an, LGTBIQ+ harrotasunaren egunean, harro gaudela aldarrikatu nahi dugu. Harro gaude gure bizitzez, harro gure genealogiaz eta harro LGTBIQ+ mugimenduaz.

Komunikabide nagusien estigmatizazio saiakera ezberdinek zein manipulazioak, eskuin muturreko diskurtso intoleranteek eta gorroto jarrerak cisheteroarautik kanpo kokatzen diren bizitzak ezabatu nahi dituzten honetan, inoiz baino garrantzitsuagoa da nondik gatozen gogora ekartzea, ospatzea eta aldarrikatzea. Stonewalletik Euskal Herrira, milaka bizipen, galera, aldarrikapen eta lorpen izan ditugu, baina oraindik egiteko asko dugu. Eraso LGTBIQ+ fobikoen salaketan datuak esponentzialki egin dute gora azken urteetan, LGTBIQ+ pertsonen inbizibilizazio eta bazterketak presente jarraitzen du gure bizitzako arlo guztietan, diskurtso patologizatzaileak ugaritzen ari dira... eta ondorioz gure bizitzak arriskuan daude.

Honen guztiaren aurrean, antolatzea eta borrokatzea ezinbestekoa dugu. Gure kasuan, instituzioetatik politika publiko integral eta sendoak, perspektiba feministan oinarritutako zerbitzuak, babes kolektiborako eta autodefentsarako mekanismoak ezartzeko bideak... ezartzea ezinbestekoa dugu. Anekdotikoak diren politikak alde batera utzi, eta estrukturalak diren horiek erdigunean jartzeko garaia da. Horretan ari gara eta hori sustatzen jarraituko dugu, askoren artean eta elkarlanean.

Horregatik guztiagatik udaletan konpromisoa hartzen dugu, gure herriko LGTBIQ+ pertsonen bizitzen gaineko diagnostikoak egin, eta honetan oinarritutako ekintza plan integralak abiatzeko. Prozesu hauek, herriko LGTBIQ+ mugimenduko kideekin batera egiteko konpromisoa hartzen dugu eta egon ezean, erreferente eta norbanako ezberdinak aktibatzeko moduak sustatuko ditugu.

Honetaz gain, dei egiten dugu Ekainaren 28aren bueltan antolatu diren ekimen eta mobilizazioetan parte hartzeko, eta amaitzeko, LGTBIQ+ pertsonen bizitzak egunerokotasunean bizigarriak izateko, lan eta borrokatzen ari diren kide eta kolektibo guztiak zoriondu nahi ditugu, harrotzeko moduko mugimendua osatzen dugulako.

Gora Ekainaren 28a!”

Honela izan da bozketa:

Alde: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Jon Mikel Azpiazu Zubeldia, Ainhoa Arrozpide Landa, Xabat Beloki Segurola, Iratxe Begiristain Otegi, Xabier Aranburu Leiva, Jose Maria Lizaso Azconobieta, Oskar Santamaria Picabea, Maialen Iñarra Arregi, Xabier Otxoa Muñoz, Josune Urkola Larrarte, Ivan Iriondo Axpe eta Petra Romero Pozo.

Beraz, mozioa aho batez onartu da.



Usurbilgo Udala

2024/06/27

12.- GALDERA ETA ESKAERAK.

Ez dago.

Eztabaidarako gaiak amaiturik, alkateak batzarraldia bukatutzat eman du arratsaldeko 20:05etan. Eta aztertutakoa eta erabakitakoa jasota gera dadin akta hau jaso da, idazkariak izenpetuz, alkatearen oniritziarekin.